




Hiru gurariak



GURARI EDO NAHI
BAT ESKATZEKOTAN,
ZER ESKATUKO
ZENUKE?

Behin batean, itsasertzeko etxe-
txo batean, arrantzale bat eta
haren emaztea bizi ziren. Pobreak
ziren, eta arraina besterik ez zuten jaten. Sarri
pentsatzen zuten:

—Oilaskoa, txorizoa edo txokolatea jan ahalko bagenu...

Behin, gizona urruti-urrutira joan zen arrantzara. Sarea ure-
tara bota, eta uretatik atera zuenean, konturatu zen arrain
baten ordeztu gizakote bat harrapatu zuela. Gizakoteak oso
luzea zeukan bizarra, biluzik zegoen, eta urrezko koroa
zeukan buruan.

—Lagundu saretik irteten! —oihu egin zion gizakoteak.

—Nor zara zu? —galdetu zion arrantzaleak.

—Itsasoko Erregea naiz.


—Ez zaitut askatuko. Saldu egingo zaitut.

Orduan, besteak esan zion:

—Aske uzten banauzu, beste ezer baino nahiago dituzun
hiru gauza emango dizkizut.

Hura entzutean, arrantzaleak aske utzi zuen Itsasoko Erre-
gea. Etxera itzulita batera, andreari kontatu zion dena.





—Eska iezaiozu jauregi bat! —esan zion emazteak.

—Nik, berriz, nahiago txorizo on bat afaltzeko!

Hori esan, eta txorizo eder bat agertu zen mahai gainean.

—Zu bai inozoa! Jauregiaren ordeztu, txorizoa eskatu.

—Ni inozoa? Tira, zaude isilik. Nahiago nuke txorizoa sudurrean itsatsiko balitzaizu.

Esan eta egin! Hura piura andreak zeukana, mahai gaineko txorizoa sudurrean itsatsita!

—Lasai, andrea —esan zion senarrak—, beste gurari bat geratzen zait, eta jauregi bat eskatuko dut zuretzat.

—Nik txorizo hau sudurretik kentzea baino ez dut nahi!

Gizonak, orduan, horixe eskatu zuen, eta ezer irabazi eta ezer galdu gabe, senar-emazteek beti bezain pobre jarraitu zuten hil arte.

IPUINA GUSTATU AL ZAIZU?



BAI



EZ



ERDIZKA



Misterioa argitzen

1 Zer lanbide zeukan protagonistak? Adierazi, ~~x~~ eginez. Gero, idatzi.



Ipuineko protagonista _____ zen.

2 Egia (E) ala gezurra (G)? Adierazi.



Senar-emazteek denetarik jaten zuten.



Senar-emazteek beti arraina eta okela jaten zuten.



Senar-emazteek egunero arraina jaten zuten.

3 Zer harrapatu zuen arrantzaleak? Azpimarratu, eta idatzi.



arrain mordoa



altxorra



gizakote bizardun

Arrantzaleak _____ harrapatu
zuen.

4 Zer eskatu zioten senar-emazteek Itsasoko Erregeari? Lotu.

lehenengo •

gero •

azkenik •

- txorizoa
- jauregia
- txorizoa sudurrean itsastea
- txokolatea
- txorizoa sudurretik kentzea

5 Nola esango zenuke beste modu batera “Zu bai inozoa!”? Adierazi, x eginez.

☐

Tontolapikoa!

☐

Babua!

☐

Txolina!

☐

Melontzioa!

☐

Zerria!

☐

Koitadua!

6 Aukera izango bazenu, zer hiru gurari eskatuko zenituzke? Idatzi.

7 Nola bukatu zen istorioa? Adierazi, x eginez.

☐

Zeukaten guztia galdu zuten.

☐

Jauregia eta txorizo pila bat lortu zituzten.

☐

Lehen bezala geratu ziren.